

Nola lor dezaket etxetik kanpoko partidetarako sarrerak eskuratzeko informazioa?

Normalean, partida baino aste bat edo bi lehenago jakinarazten da <https://www.realsociedad.eus/> web orriaren bidez zenbat sarrera daude eskuragarri eta, horrekin batera, sarreren prezioa, kolektibo guztien banaketa eta sarrerak kudeatzeko baldintzak, bai eta sarrerak jasotzeko eta ordaintzeko baldintzak ere. Tokiko taldeak egiten duen partidaren antolaketa baldintzatzen du informazio hori jakinarazteko data.

Zein da sarrera horien prezioa?

Prezioa tokiko taldeak ematen du. Prezioa bakarra da, aurkariaren zelaira doan zalearen adina edozein dela ere. 'Bisitarien Harmaila' akordioa osatzen duten klubek 30 €-ko prezioa izango dute.

Diru bilketa tokiko taldearentzat da osorik.

Zenbat eserleku ditu klubak?

Tokiko taldeak baieztatzen du zenbat eserleku dauden zale bisitariarentzat eta zer gunetan dauden eserleku horiek. Kopuru horretatik banaketa bat egiten da bazkide/RS Fan edo zaleentzat, peñentzat eta klubaren konpromisoentzat. 'Bisitarien Harmaila' akordioan sartzen diren klubaren artean gutxienez 300 sarrera banatuko dira.

Sarrerak digitalak edo paperean dira?

Tokiko taldeak erabakiko du sarrerak fisikoak edo formatu digitalekoak diren.

Ba al dago kontuan hartu beharreko errekerimendurik estadiora sartzeko?

Estadiora sartzeko araudia tokiko taldeak ezartzen du, eta, beraz, hark ezarritako edozein errekerimenduren berri emango da. Klubak ez du erabakitze aukerarik termino horietan. Realak kudeaketa errazteaz arduratzen da, etxetik kanpo partidetara joan ahal izateko.

Sarrerak izendunak dira; beraz, beharrezkoa da aurkariaren zelaira joango den pertsonaren datuak ematea.

Zer egin behar dut sarrerak eskatzeko?

Eskaera egiteko, ezinbestekoa izango da argitalpenean eskura jartzen den eskaera inprimakian izena ematea. Egiten diren eskaerak, data, talde aurkaria, prezioa, kirol egoera eta datu historikoak kontuan hartuta, izena emateko irizpide hauek ezartzen dira:

ZOKKETAREN BIDEZ:

- Zozketa: Bazkideak edo RS Fanek + bazkide edo RS Fana den laguntzaileak izena ematea
- Zozketa: Bazkideak edo RS Fanek + Zalea den laguntzaileak (zaleak ez du zertan bazkide edo RS Fan izan) izena ematea

IZENA EMATEKO HURRENKERAREN ARABERA:

- Bazkideak edo RS Fanek + Zalea den laguntzaileak (zaleak ez du zertan bazkide edo RS Fan izan) izena emateko hurrenkera
- Zaleak + Zalea den laguntzaileak (zaleak ez du zertan bazkide edo RS Fan izan) izena emateko hurrenkera

Argitalpen bakoitzean adieraziko da zer irizpide ezarri den partidarako.

Nork eman dezake izena eskaera inprimakian?

Izena emateko irizpidearen arabera, eskaera Realeko bazkideek eta/edo RS Fanek edo Realeko zaleek egin ahal izango dute. Garrantzitsua da eskaera inprimakian datuak behar bezala jartzea eta datu horiek partidara joango den pertsonarena izatea, leihatilan ordaintzeko unean ez baita izen aldaketarik onartuko. Sarrerak izendunak dira segurtasun errekerimenduagatik.

Partida batzuetan laguntzailea (aukerakoa) bazkide edo RS Fan izan beharko da. Beste partida batzuetan, berriz, ez da beharrezkoa izango hala izatea, eta zale guztiei irekita egongo da. Inolaz ere ezin izango da eskaera inskripzioa aldatu.

Zale bakoitzak, dituen bazkide zenbaki kopurua kontuan hartu gabe, behin bakarrik eman dezake izena.

Enpresaren ID batekin eskaera egiten baduzu:

- ID eremuan, sartu Bazkide txartelaren zenbakia.
- Izenaren eremuan, sartu Bazkide/zalearen izena.
- 1. abizenen eremuan, idatzi enpresaren izena.
- 2. abizenak eremuan, sartu Bazkide/zalearen 1. eta 2. abizenak.
- NAN eremuan, sartu Bazkide/zalearen NAN zenbakia

Kanpoko partidara bidaiatu nahi duen pertsona bakoitzeko behin bakarrik eman dezakezu izena. Pertsona bat dagoeneko erregistro pertsonala duen formularioan badago, ez da beste eskaerarik onartuko.

Noiz eman dezaket izena eskaera inprimakian?

Jakinarazpenean irekiera data eta ordua zehaztuko dira, baita itxierakoa ere, zeina errespetatu beharko den, bestela, ezingo da-eta izena eman sarrera eskatzeko.

Inprimakian eman dut izena, baina nola dakit sarrerak esleituta ditudan?

Inprimakian izena eman ondoren, baieztapena posta elektroniko bidez iritsiko da:

- Zozketa egin bada, posta elektroniko bidez jakinaraziko da zozketan sarrerarik egokitu zaizun ala ez. Albistean ere kontsultatu ahal izango da sarrera egokitu zaizun ala ez. Sarrera egokitu bazaizu, sarrera ordaintzera eta jasotzera joan ahal izango zara adierazitako egunean.
- Inprimakian izena emateko hurrenkeraren arabera bada, posta elektroniko bidez baieztatuko da sarreraren zenbatekoa ordaintzera eta hartzera joan daitekeela.

Zozketa egin behar izanez gero, nola egingo da?

Izena emateko inprimakia adierazitako epeen arabera itxi ondoren egingo da zozketa. Horretarako, pauso hauek egingo dira:

1. Inprimakian izena eman dutenen eta haien laguntzaileen datu basea deskargatuko da, izena emateko hurrenkeraren arabera
2. Eskaerak 1etik Xera zenbakituko dira. X da eskaera kopurua guztira.
3. Inprimakian eskaera bikoizturik balego, ezabatu egingo da.

4. Ausazko zenbakiak sortzeko programa erabiliko da, 1 eta X zenbakien artean zenbaki bat ausaz ateratzeko
5. Ateratako zenbakitik hasita eta hurrenkerari jarraituta, izena eman duten hurrengoei esleitzen zaie sarrera, eskuragarri dauden sarrera guztiak esleitu arte.

Zerrendako hurrenkera mantenduko da, sarrerak soberan egonez gero bazkideei, RS Fanei eta/edo itxaron zerrendan dauden zaleei esleitu ahal izateko.

Zozketa Klubaren Zuzendaritza Batzordearen kontrol-agintaritzaren zaintzapean egiten da.

Nola eta noiz egingo dut ordainketa, sarrerak hartu ahal izateko?

Sarrerak hartzeko, Reale Arenako leihatilara joan behar da komunikazioan adierazitako egunean, 10:00etatik 20:00etara. Horretarako, garrantzitsua da izena eman duen pertsonaren NANA eta baieztapenaren mezu elektronikoa aurkeztea.

Izena eman duen pertsonak ezin badu bera zuzenean bertaratu, beste pertsona batek hartu ahal izango du eskatutako sarrera bere izenean, baldin eta izena eman duenaren NANaren kopia edo argazkia eta bazkide txartela edo RS Fanaren txartela erakusten baditu, baieztapenaren mezu elektronikorekin batera.

Sarrer(ar)en zenbatekoa ordaindu ondoren, sarrera(k) jaso ahal izango d(ir)a. Ezarritako egun eta ordutegitik kanpo ez dira sarrerak hartzeko eskaerei erantzungo. Jaso ez direlako sobera geratu den sarrerarik badago, itxaron zerrendan daudenei jakinaraziko zaie hurrenkeran (itxaron zerrendarik baldin badago), sarrera eskaerei erantzuteko eta sarrerak jaso ditzaten.

Sarrerak baieztatuta dauzkatz, baina ezin naiz adierazitako egunean eta orduan joan sarrerak ordaintzera eta hartzera. Zer beste aukera daude?

Sarrera hartzera etortzerik ez baduzu, beste pertsona bati baimena eman diezaiokezu zure orde z sarrerak har ditzan, hari zure NANaren argazkia edo Bazkide edo RS Fan txartela eta baieztapenaren mezu elektronikoa emanaz.

Ezin baduzu inor baimendu, posta elektronikoa bidez jakinarazi dezakezu egoera hori, tickets@realsociedad.eus helbidera idatziz. Hori egiteko azken eguna sarrerak jasotzea dagokizun egunaren aurreko eguna izango da.

Arrazoi justifikatu bategatik sarrerak jaso ezin badira, ahal den neurrian, salbuespenezko bidalketa bat antolatuko da operazio bakoitzeko 5€ko kostu gehigarriarekin kudeaketa gastuengatik.

Sarrerak baieztatuta badauzkat, baina azkenean ezin badut partidara joan, zer egingo dut?

Jakinarazi egoera hori tickets@realsociedad.eus helbidera idatziz, sarrera itxaron zerrendakoei esleitu ahal izateko.

Izena eman duten pertsona guztiei begirunea izanda, sarrera(k) esleituta d(it)uen norbait abisatu gabe sarrera(k) jasotzera ez badoa, ezin izango du parte hartu sarrera eskaerak egiteko hurrengo hiru inprimaketan.